DECANO DE LA PRENSA GUIPUZCOANA www.diariovasco.com

# EL DIARIO VASCO

SAN SEBASTIÁN
Jueves 4.11.10
Nº 24.660 • 1,20 euros

**V.** EXPECTACIÓN ANTE LA VISITA DEL PAPA V2



'NESKATILAK', EMAKUMEEN HITZ ETA IRUDIAK

Protagonistak ere neskak dituen liburu sail berria 54 Or.

## Obama admite que se ha llevado «un palo» P34



**La cara de la derrota.** El semblante del presidente de Estados Unidos refleja su decepción por los resultados durante la comparecencia de ayer en la Casa Blanca. :: SAMAD / AFP

# Gipuzkoa espera volver en 2013 a la recaudación de antes de la crisis

### Se confía en poder rebajar el endeudamiento de 88 millones en 2011 a 45 en 2012

### El plan de la Diputación recoge una serie de medidas para poder cumplir los objetivos

La Diputación de Gipuzkoa cree que la mejora de la economía permitirá volver en 2013 a cifras de recaudación similares a antes de la crisis. Ésta es la previsión del Plan Económico Financiero 2011-2013 que ha elaborado la Hacienda foral para recuperar el equilibrio presupuestario tras unos años en los que ha sido necesario engordar los niveles de deuda para poder cuadrar las cuentas. El plan foral recoge una serie de medidas de ajuste que permitirán reducir el recurso al endeudamiento, que en 2011 llegará a los 88 millones, frente a los 150 de este año, y que en 2012 caerá a 45 millones para acabar en 2013 solicitando financiación exterior por valor de 23 millones. **DAVID TABERNA** P40

DEPORTES

## La economía de la Real es solvente pero exige prudencia presupuestaria

No será necesario recurrir a la venta de jugadores para lograr el equilibrio de las cuentas

**JORGE F. MENDIOLA** P60

**35,9**

**PRESUPUESTO 2010-11**
La Real espera ingresar 35,9 millones de euros, con unos gastos de 34,9



DISFRUTAR ES VIVIR LOS GRANDES CAMBIOS. Y CONDUCIRLOS

Infórmate en la Pág. 9

BMW X1 DESDE 200 EUROS AL MES CON MANTENIMIENTO INCLUIDO

Durante 36 cuotas, con una entrada de 11.465 euros y un valor final de 14.331 euros. TAE 5,82%.

Consumo promedio: 5,2 l/100 km. Emisiones de $CO_2$: 136 g/km.

POLÍTICA

### El PP pretende dar un nuevo impulso al pacto con el PSE P28

ACCIDENTE

### Quince heridos al chocar un autobús y un camión en Zarautz P2



PREVENIR INCENDIOS

### La Su Eskola espera atender a 5.000 personas al año en Ordizia P6

104 PÁGINAS | AL DÍA 2 | EDICIONES 16 | OPINIÓN 22 | ESQUELAS 26 | ACTUALIDAD 28 | MUNDO 34 | ECONOMÍA 40 | BOLSA 46| TUS ANUNCIOS 48 | CULTURA 52 | DEPORTES 60 | TIEMPO 71

V. Pasatiempos 9 | Cartelera 10 Agenda 11 | Televisión 12

DVK

# Neskatilen hitzak eta marrazkiak

## Neskatilak dira halaber Ereinen sail berriko protagonista gehienak

Zortzi liburorekin abiatu da 8-10 urte bitarteko neska-mutikoei zuzendutako bilduma

:: NEREA AZURMENDI

DONOSTIA. Guraso artisauekin batera, azokaz azoka dabilen Maialen; oheratzeko orduan amonaren istorioen zain egoten ziren bilobak; gurasoek ahaztuta utzi dutelakoan, hiria bere kabuz esploratzea erabakiko duen neska ausarta; Ane, armairu batean ezkutatuta irakurtzen ari dela traperoek armario eta guzti eramango dutena...

Zortzi istorio eta (ia) denetan, 8-10 urte bitarteko beste horrenbeste neskatila protagonista. Hori da Erein argitaletxeak abiatu duen ereiNESKATILAK sail berriaren ezaugarri nagusietako bat. Badu beste bat, hori ere oso nabarmena, sortzaileei dagokiena, zortzi liburuok egiteko zortzi bikote osatu baitira, idazle eta marrazkilari bana elkartuz, emakumeak bi-biak.

Argitaletxeko arduradun Iñaki Aldekoak azaldu zuenez, protagonisten adin bertsuko neska-mutikoei zuzendutako sailaren asmoa aspalditxotik zeukaten buruan, baina kostatu egin zaie ideia gauzatzea, nahiz eta abiapuntua argi eduki: sortu neskatila bat eta horren bizitza-pasadizoren bat garatu, idazle bakoitzaren iritziaren eta irudimenaren arabera, betiere gaurko emakumearen begiratutik. Kontuan izanik, gainera, nerabezaro aurreko urte horiek bereziak direla: «8 eta 10 urteko umeek bere sustotxoak eramango dituzte bizitzak aurrera egin ahala, bizitza bizi ahala, hazteak bere errituala du, eta inor ez dago igarobide horretatik aske».

Hasierako erronkari eusteko egin du hain zuzen argitaletxeak «ahalegin berezia» istorioei marrazkien eta hitzen bidezko garapena ematen dieten bikoteak emakumez osatzeko.

Idazleen artean, belaunaldi desberdinetako ordezkariak. Enkarni Genua donostiarra –sei bilobaren amona, beraxek gogora ekarri zuen bezala– da beteranoena, bere narrazioan guztion bizitzan dagoen udaldi iniziatiko berezi hori gogora ekarri duena. Gazteena, berriz, Leire Bilbao ondarroarra. Tartean, Aitziber Etxeberria, Alaitz Olaizola, Arrate Egaña, Aizpea Goenaga, Ana Urkiza eta Yolanda Arrieta. Bakoitzak bere istorioa, bakoitzak bere ikuspegia, bakoitzak (batek izan ezik) bere neskatila... Narrazioetan aniztasuna da nagusi, alegia: «Gaiak asko dira, neskak bezainbat. Munduak esperientzia asko eskaintzen dizkigu, eta portaera desberdinetan mamitzen dira. Izaerak bezainbat portaera. Eta halaxe gertatzen da ipuin hauekin ere: gizarte batean jende diferentea bizi gara. Kezka eta ikusio desberdinak dituzten neskatilak».

Idazleen ezinbesteko bikotekide, zortzi marrazkikari: Eider Eibar, Estibalitz Jalon, Aitziber Alonso, Karmele Cruz, Marimar Agirre, Ihintza Larrañaga, Idoia Beratarbide eta Concetta Probanza. Bakoitza, nola ez, bere estiloan.

### Asko, eta oso onak

Zortzi emakume idazle proiektu bera partekatzen ikustea oso arrunta ez bada, ezohikoagoa gertatzen da zortzi emakume marrazkilari elkartzea. «Emakume ilustratzaile asko gaude, eta gehienak oso onak gara», esan zuen gainerakoen izenean Aitziber Alonsok, ekimenak proiekzioaren aldetik izan dezakeen balioa bere neurrira ekarri nahirik edo...

Kontuan izanik «zortzikote honekin ez dela saila itxita geratzen» eta «aurrera begira ateak irekita» gelditzen direla, neskatila idazle, marrazkilari eta protagonista asko ditugu oraindik ezagutzeko.

**LIBURUAK**

**'BIDEGORRIKO FESTA'**
**Idazlea:** Ana Urkiza.
**Marrazkilaria:** Aitziber Alonso.

**'GABE GABE'**
**Idazlea:** Arrate Egaña.
**Ilustratzailea:** Marimar Agirre.

**'ARMAIRU BATEAN IPUINAK IRAKURTZEN ZITUEN NESKA'**
**Idazlea:** Leire Bilbao.
**Marrazkilaria:** Estibalitz Jalon.

**'NITAZ AHAZTU DIRA'**
**Idazlea:** Yolanda Arrieta.
**Ilustratzailea:** Eider Eibar.

**'RAMONI RAMONI'**
**Idazlea:** Aizpea Goenaga.
**Marrazkilaria:** Ihintza Larrañaga.

**'MAHATSAK ETA NESKATILAK ONDU ZIRENEKOAK'**
**Idazlea:** Enkarni Genua.
**Marrazkilaria:** Karmele Kruz.

**'LAPURRAK DABILTZA AZOKAN'**
**Idazlea:** Aitziber Etxeberria.
**Marrazkilaria:** Concetta Probanza.

**'MIKEL ETA MIKAELA'**
**Idazlea:** Alaitz Olaizola.
**Marrazkilaria:** Idoia Beratarbide.



**Bikoteak.** Enkarni Genua erdian dutela, liburuen osaketan jardun duten idazle/marrazkilari bikoteak –ilustratzaileren bat falta da– atzo Donostian. :: NAGORE IRAOLA

# Idazle Eskolak Karmele Igartua omenduko du

:: DV

DONOSTIA. Abuztuaren amaieran hil zenetik hona, lagun-talde askok omendu dute Karmele Igartua idazlea. Hilaren 13an, larunbatez, Idazle Eskolak eskainiko dio «galdutako adiskideari egin beharreko omenaldi-ekitaldia».

Ekitaldia eguerdiko 12.00etan hasiko da Karmele Igartua lehenik ikasle eta ondoren eragile bezala lanean jardun zuen eraikinean bertan: Bergarako UNEDeko areto nagusian. Ekitaldiaren xedea Karmele Igartuaren bizitza eta izaera bere osotasunean erakustea eta gogoratzea da. Bere aldi guzti horiek islatzeko Idazle Eskolako adiskideekin batera Karmeleren sendiak, lagunek, lankideek eta zenbait idazle-lagunek parte hartuko dute ekitaldian. Horrek hainbat osagai izango ditu, baina batez ere Karmeleren sormen lanak izan dira ardatz. 30 lagun inguruk 'Hitzak Orbainetan' eta 'Denbora Enaren Hegaletan' poema liburuko olerkiak zen www.idazten.com web orrian argitaratutako zenbait sormen lan irakurriko dituzte. Horrekin batera, 'Itsaso kontra bat' argitaratzeko prest utzitako liburuko poemak irakurriko dira.

# 265.500 euros del Gobierno Vasco para innovar la industria cultural

Ha creado una nueva línea de subvenciones para apoyar a empresas que se desenvuelven en entornos digitales

:: DV

SAN SEBASTIÁN. El Departamento de Cultura del Gobierno Vasco ha convocado una nueva línea de subvenciones dirigidas a la industria cultural para facilitar el posicionamiento de las empresas del sector en el nuevo entorno digital.

Con el nombre de 'Kultura 2.0: programa para la innovación tecnológica de las industrias culturales' y dotadas con 262.500 euros, las ayudas, que tendrán continuidad en el futuro, están dirigidas a proyectos realizados o proyectados durante el año 2010 y, por lo tanto, apoyan específicamente a las empresas que ya se están desenvolviendo en los nuevos entornos digitales, que puedan acceder a las ayudas individualmente o en grupo.

El nuevo paquete de ayudas es una de las consecuencias prácticas del proceso de trabajo que han desarrollado conjuntamente entre el Gobierno Vasco y empresas, creadores y usuarios de los sectores de la música, el audiovisual y el libro, similar en cierto modo al proceso de reflexión que en estos momentos está llevando a cabo la Diputación Foral de Gipuzkoa.

La propuesta se enmarca dentro de otras líneas de trabajo dirigidas a la elaboración de un mapa de recursos culturales en formato digital, un análisis y seguimiento sobre la evolución de formatos y soportes, y acciones formativas dirigidas a los agentes culturales.